

UPV/EHUko ARKITEKTURAKO MATRIKULA ALDAKETARAKO IRIZPIDEAK

(2024/11/18ko Eskola Batzarrean onartuta)

Graduko Irakasketen Gestiorako Arautegia eta arlo horretako diren beste Arautegi batzuk (UPV/EU) hartzen dira erreferentziatzat (IV. kapitulua). Matrikula eta prezio publikoak:

1- Ikasleak taldeei esleitzeko irizpideak (29 eta 30)

- Ikasle berriak lehen mailan (1. fasea):
Ikasleek hizkuntza, euskara edo gaztelania aukeratu beharko dute. Ikasleek hizkuntza berean egingo dituzte irakasgai guztiak. Taldeak ausaz esleitu dira.
- Aurretik matrikulatutako ikasleak:
Ikasleek honako irizpide hauen arabera aukeratu ahal izango dute taldea:
 - Derrigorrezko irakasgaiak (euskara eta gaztelania):
Ikasleek ikasturte-hizkuntza aukeratuko dute. Hau da, irakasgai guztietarako hizkuntza bat aukeratuko du (euskara edo gaztelania). Taldea ausaz esleitu da.
 - Derrigorrezko irakasgaiak ingelesez:
Ikasleek irakasgai horiek aukeratu ahal izango dituzte matrikulatzeko unean taldeak irekita badaude (ikasturteko gainerako irakasgaietan aukeratutako hizkuntza edozein dela ere).
 - Hautazko irakasgaiak:
Ikasleek eskainitako edozein hizkuntzatan (euskara, gaztelania, ingelesa) aukeratuko dituzte aukerako irakasgaiak, betiere matrikula egiteko unean taldeak irekita badaude.

2- Matrikula aldatzeko irizpideak:

Matrikula-aldaketak onartuko dira baldin eta kupoa erabilgarri badago eta eskatzaileak iraunkortasun-araudia betetzen badu.

Eskaerak irailaren 30ean ebatziko dira. Ikasle eskatzaileak bere GAUR aplikazioan kontsultatu beharko du.

Aldaketak eskatu ahal izango dira:

- Hizkuntza-ildo bereko taldeen artean (maila bereko irakasgaiak, hizkuntza berean talde bat baino gehiago dituztenak, 01A taldetik 01B taldera, adibidez). Aldaketa taldeko irakasgai guztietarako egingo da.
- Ingelesko taldeetara, derrigorrezko irakasgaietan.
- Hautazko ikasgaien artean.

Ikasturte bereko irakasgai solteetan (euskaratik gaztelaniara edo gaztelaniatik euskarara) ez da onartuko hizkuntzaz taldez aldatzeko eskaerarik. Irakasgai guztietan kontuan hartuko dira hizkuntzaren arabera taldez aldatzeko eskaerak.

Matrikula aldatzeko eskaerak egiteko epea ikasturteko lehen astean izango da. Ez da onartuko epez kanpo aurkeztutako eskaerarik. Salbuespen gisa, eta justifikatutako arrazoiengatik, matrikula aldatzeko eskaerak egin ahal izango dira bigarren lauhilekoaren lehen astean.

Beste eskabide batzuk agiri bidez arrazoitu eta justifikatu beharko dira. Honako hauek hartzen dira arrazoi justifikatutzat: edo Osasun-arrazoiak (erantsi zigilatutako mediku-egiaztagiria).

- Lana (lan-kontratua eranstea), Kirol federatua (justifikazio-agiriak eranstea) edo Irakasleen onspena (idatzizko onarpena eranstea).
- Balorazio objektiboko beste egoera batzuk

Eskabideak Ikasleen Idazkaritzak prestatu eta argitaratuko dituen inprimakien bidez bakarrik egingo dira.

3- Irakasgaiak ezabatzea edo gehitzea:

Ikasleek irakasgai solteak kentzea edo gehitzea eska dezakete. Irakasgaiak gehitu ahal izango dira, baldin eta kupoa badago eta eskatzaileak iraunkortasun-araudia betetzen badu.